

El Sotillo trikuharriko genoma bat, izurri bubonikoaren ebidentzia zaharrenen artean

Neolitotik Eurasian izurri bubonikoak izan duen bilakaera argitu dute, *Yersinia pestis* bakterioaren genoma zaharrak aztertuta; zehazki, 17. Genoma horiek Eurasian duela 5.000-2.500 urte bizi izan ziren 252 banakoren hortzetan aurkitu dituzte, tartean, El Sotillo trikuharrian hobiratuta zegoen batean (Arabako Errioxa). Duela 3.300 urte inguru ehortzi zuten, eta harena da penintsulan aurkitutako *Yersinia pestis* bakterioaren ebidentziarik zaharrena.

Yersinia pestis bakterioak izurri bubonikoa eragiten du, eta, beraz, frogatu dute Brontze Aroan jada bazegoela gaixotasun hori, hala hil baitzen El Sotillon ehortzitako gizon hori. Bakterioen azterketa genetikoak erakutsi du bi andui zeudela Eurasian, eta biak aldi berean egon zirela, gutxienez, 2.500 urtez. Haietako bat arkakusoen bidez transmititzen zen, eta iraun egin zuen; bestea, aldiz, galdu egin zen Burdin Aroan, eta ez dakite zein animalia bidez transmititzen zen.

Ikerketan aztertu dituzten genomatik bi baino ez dira arkakusoen bidez transmititzen diren anduikoak: El Sotillokoa eta Samarakoa (Errusia). Bi leku horien artean dagoen distantziak (5.000 km inguru) argi uzten du zenbateraino zegoen zabaldua izurri bubonikoa. ●



El Sotillo korridore-motako hilobi megalitikoa. Lezan dago (Arabar Errioxa). ARG.: Ángel M. Felicísimo/CC BY 2.0.

Tratamendu onkologikoen albo-ondorioak larriagoak emakumeetan

Minbiziaren aurkako tratamendu nagusiek emakumeetan eta gizonetan sortzen dituzten albo-ondorioetan desberdintasunik ote dagoen aztertu dute AEBetako ikertzaile batzuek, eta baietz ondorioztatu dute: emakumeetan, albo-ondorio larriak gizonetan baino % 34 ohikoagoak dira. Diferentzia are nabarmenagoa da immunoterapiari: emakumeek % 49 gehiago izaten dituzte.



Kimioterapia da tratamendu onkologiko ohikoenetako bat. ARG.: Artxibokoa.

Ikerketa asko egiten dira tratamendu onkologikoen albo-ondorioak nola leundu jakiteko. Alabaina, gehienbat kimioterapiaren ondorioak ikertu dira, eta oraindik ez dira hainbeste ikerketa egin terapia berriekin. Orain egin duten ikerketak, beraz, informazio baliotsua eman du, eta erakutsi du lehenasunezkoa dela ondorioak sexuaren arabera ikertzea; bereziki, kontuan izanda immunoterapiari dagoela alderik handiena, eta tratamendu hori gero eta ohikoagoa bilakatzen ari da, harekin lortzen baitira emaitzarik onenak minbizi batzuen kasuan. [Journal of Clinical Oncology aldizkarian argitaratu dute ikerketa](#), irekian. ●